

Harremanak euskaraz izan daitezen gonbita luzatu du Andoaingo Udalak

- **18 urte bete dituzten gazteei gutuna bidaliko die Udalarekin dituzten harremanak euskaraz izan daitezen gonbidatuz**

Andoainen, 25-01-13.- Andoaingo Udalak bi modutan izaten ditu herritarrekin idatzizko harremanak, hizkuntzari erreparatuz gero:

- Euskara hutsez, Euskararen Errolda deituriko erregistroa izena eman duten guztiekin, gaur egun 3.000 andoaindarrekin.
- Euskaraz eta gaztelaniaz, erregistro horretan azaltzen ez direnekin.

Halere, erregistro horretan egon arren, herritar guztiek aukera dute edozein momentutan Udalak bidaltzen dien informazioa hizkuntza batean zein bestean eskatzeko.

Behin 18 urte beteta, gero eta ugariagoak izango dira Udalarekin dituzten harremanak, eta Udalak jakin nahi du zein hizkuntzatan nahi duten harreman hau izatea. Kontuan izanda 15-24 urte bitarteko gazte andoaindarren % 88tik gora euskaldunak direla, Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuak gazte hauek euskararen aldeko hautua egin dezaten kanpaina jarri du abian.

2024an 18 urte bete dituztenek kanpainaren nondik-norakoak azaltzen dizkien eskutitza jasoko dute etxean. Hemendik aurrera Udalarekin dituzten harremanak zein hizkuntzatan nahi dituzten izan adieraz dezakete eskutitzarekin batera azaltzen den inprimakia beteta eta Udaletxeko Atarian edo Bastero Kulturguneko harreran aurkeztuta. Horretarako, **otsailaren 28 bitarteko epea** izango dute.

Inprimakia modu fisikoan nahiz elektronikoan aurkeztu ahalko da, eta horretarako eskutitzean azaltzen den QR kodea edo honako lotura erabiliko da:

<https://labur.eus/andoaingoudalarekineuskaraz>

Inprimakirik aurkezten ez bada, Udalak ulertuko du harremanak euskaraz izan nahi dituela herritarrak, eta Udaleko Euskararen Errolda erregistroan jasoko da. Hori bai, orain egindako aukera herritarrak nahi duen momentuan aldatu ahal izango du, noski, eta horretarako Udalari jakinaraztea baino ez du egin behar.

Informazio gehiago www.andoaindarraeuskaraz.eus webgunean, Andoaingo Euskara Zerbitzuko sare sozialetan, nahiz 943 300 831 telefonoan.